



**AGINDUA, ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUARENA,
GAZTELAGUN PROGRAMAKO ETXEBIZITZA ALOKATZEKO LAGUNTZAK
ARAUTZEN DITUEN AGINDU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO.**

2026ko uztailaren 14ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen agindu-proiektua egiteko prozedurari.

Idazketa amaituta, Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen agindu-proiektua izenburua duen testu bat proposatzen da.

19 artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu.

Hori horrela, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko die dagozkien izapideak egin aurretik.

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Aldez aurreko onarpena ematea Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen agindu-proiektuari.

BIGARRENA.- Proiektu hori egiteko prozeduraren instrukzio-izapideekin jarraitzea Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUA

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.



ERANSKINA.

AGINDUA, 2026ko abenduaren XX (e) koa, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarena, Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen.

Gaztelagun Programa 2018an sortu zen proiektu pilotu gisa, gazteen emantzipazioa errazteko helburuarekin, enpleguarekin eta etxebizitza eskuratzearekin lotutako arazoek eraginda.

Ondoren, emantzipazio hori zailtzen zuten kausak kroniko bihurtu zirela eta Gaztelagun programa hobetzeari buruzko 52/2021 Legez besteko Proposamena onartu zela kontuan hartuta, beharrezkotzat jo zen programa hori egiturazko programa bihurtzea arau-xedapen orokor baten bidez: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Agindua, Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen azken xedapenetako lehenengoak beharrezkotzat jo zuen indarraldi mugagabea arautzeko oinarri guztiak legean xedatutakora egokitzea. Egokitzapen hori egiten ez bazen, eta egokitzapen hori beharrezkoa bazen urtebeteko epean, gerora beste urtebetetera luzatuta, araua indargabetutzat hartu behar zen.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak, araua aztertu ondoren, ez zuen beharrezkotzat jo egokitzapen hori egitea, baina Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ez zuen bat egin erabaki horrekin, eta, egokitzapen hori egin ezenez, araua 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetutzat jo behar zela erabaki zuen.

Horregatik, eta laguntza hori ez eteteko, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2026ko ekainaren 5eko Agindua eman zen, zeinaren bidez onartzen baitira Gaztelagun programaren oinarriak eta deialdia egiten baita 2026ko ekitaldirako, etxebizitzak alokatzeko laguntzei dagokienez.

Hala ere, laguntzaren bokazioak egiturazkoa eta mugagabea izaten jarraitzen du, eta, beraz, premiaz arautu behar da xedapen orokor batean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 3. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Helburua oraindik ere gazteen emantzipazio-tasa handitzea da, eraginkortasuna eta erabilgarritasuna argi eta garbi frogatu duen programa bat finkatuz.

2025-2027 Etxebizitzaren Gida Planak hainbat ekintza jasotzen ditu, gazteen emantzipazio-mailak hobetzea helburu duten hainbat ardatz eta estrategiatan sartzen direnak. Zehazki, 3. ardatzak Gaztelagun Programa lehentasunezko hartzen du gazteek etxebizitza librea errentamendu-erregimenean eskuratzeko esparruan.

Laguntza hori Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduan sartzen da, zeinaren bidez onartzen baita Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Horrenbestez, eta lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), abenduaren 3ko 411/2024 Dekretuak (Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen dizkidan gainerako xedapenak ematen didaten eskumena baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. – Xedea.

Agindu honen xedea da gazteei etxebizitzak alokatzen laguntzeko Gaztelagun programaren oinarriak arautzea.

2. artikulua. – Programaren ezaugarriak.

1. – Gaztelagun programaren laguntzen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza libre bat alokatzeagatik ordaindutako errentaren ehuneko bat ordaintzen da hileror. Agindu honen ondorioetarako, errentaren kontzeptutik kanpo geratzen dira beste kontzeptu batzuk, hala nola komunitate-gastuak, OHZ edo gastuen beste edozein jasanarazpen. Kontratuan gastu horiek jasotzen badira, baina banakatuta ez badaude, hitzartutako errentaren % 6 direla ulertuko da.

2. – Etxebizitzaren hasierako hileko errenta ez da 900 eurotik gorakoa izango Bilbon, Donostian eta Gasteizen; 800 eurotik gorakoa Bilboko eta Donostiako metropolialdeetan eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietan; eta 750 eurotik gorakoa izango gainerako udalerrietan.

Hala ere, Gaztelagun programaren onuradun izaten jarraituko dute hasierakoaren ondorengo urterokoetan zenbateko horiek gainditzen dituzten errentak ordaintzen dituzten pertsonak, errenta horiek Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 29ko 29/1994 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eguneratu direlako.

3. – Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren agindu bidez bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzen diren udalerrien kasuan, muga horiek handitu ahal izango dira Alokairu Merkatuaren Estatistikak (AME) etxebizitza dagoen udalerriari ratio bererako egotz dakiokeen prezioaren % 95era arte, igoera hori aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko muga baino txikiagoa denean izan ezik.

4.- Laguntza urtebeterako emango da, sortzapen-datatik zenbatzen hasita, eta automatikoki luzatuko da urte bakoitza amaitzean, baldin eta agindu honek indarrean jarraitzen badu, kreditu egokia eta nahikoa badago eta onuradunek aginduan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

5.- Laguntza honen ondorioetarako, gaztetzat hartuko dira 18 eta 35 urte bitartekoak, biak barne, salbu eta desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, horiek 18 eta 40 urte bitartekoak izango baitira, biak barne.

3. artikulua. – Baliabide ekonomikoak.

1. – Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eman beharreko Gaztelagun programako laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako esleitutako zenbatekoa, edo, indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena. Beraz, zenbateko hori agortu ondoren, ez da laguntza gehiago emango, eta kreditua agortu dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez.

2. – Urtero, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez, argitara emango da Gaztelagun programaren ekitaldi bakoitzeko dirulaguntzak finantzatzeko erabilgarri dagoen aurrekontu-zuzkidura. Laguntza horiei agindu honetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie.

4. artikulua. – Onuradunak.

1. – Pertsona fisikoak izan daitezke laguntzen onuradun, banaka edo familia-unitate batean bilduta, baldin eta 5. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

2. – Agindu honen ondorioetarako, familia-unitatea osatzen dute ezkontza bidez elkartutako pertsonak edo izatezko bikote erregistratuak, eta, hala badagokio, beren ardurapeko seme-alabek, bai eta guraso bakarreko unitateek eta beren ardurapeko seme-alabek ere.

3. – Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek, seme-alaba adingabeek izan ezik, agindu honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

5. artikulua. – Betekizunak.

1. – 18 eta 35 urte bitartekoak izatea, edozein motatako desgaitasuna duten pertsonak izan ezik, horiek 18 eta 40 urte bitartekoak izan beharko baitute. Laguntza honen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortuta dutenak.

Familia-unitateen kasuan, onuradunetako batek 36 urte betetzen baditu baina bestek

36 urte baino gutxiago baditu, laguntza gehienez ere 12 hilabete gehiago jaso ahal izango da.

2. – Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan, etenik gabe eta laguntza eskatu aurreko sei hilabeteetan bizi izana egiaztatzea.

3. – Etxebizitzaren baten jabari osoaren edo erabiltzeko eta gozatzeko eskubidearen % 50aren edo ehuneko handiago baten titularra ez izatea, salbu eta egiaztatzen bada etxebizitza eskuragarri ez dagoela banantze- edo dibortzio-arrazoiengatik, edo ezin dela bizi haren borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik, behar bezala egiaztatuta.

4. – Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza libre bateko logelen errentamendu-, azpierrentamendu- edo alokairu-kontratu baten titularra izatea, zeina haren ohiko bizileku iraunkorra izango baita. Kontratu horien titularrek erreferentziako etxebizitzan erroldatuta egon beharko dute, eta kontratuak gutxienez urtebete iraun beharko du.

Agindu honen ondorioetarako, gelen alokairutzat joko da etxebizitza baten lagapen partziala, hau da, haren dependentsietako baten lagapen partziala, kostu bidez egiten duena haren jabeek, gozamendunek edo azalera-eskubidearen edo errentamendua ez den beste edozein eskubideren titularrek.

5. – Bigarren mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasunik ez izatea etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetza-unitateko edozein kiderekin.

6. – Errenta banku-transferentzia bidez ordaintzea.

7. – Honako diru-sarrera hauek egiaztatzea:

Eskatzaileek, banaka, urtean 30.000 euroko edo gutxiagoko eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera gordinak dituztela egiaztatu beharko dute.

Familia-unitate osoak urtean 36.764 euroko edo gutxiagoko eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera gordinak dituela egiaztatu beharko du.

Familia ugarien kasuan, urtean 39.184 euroko edo gutxiagoko eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera gordinak dituztela egiaztatuko da.

Ezarritako gehieneko diru-sarrerak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean eguneratuko dira, Eustatek argitaratutako Euskadiko Kontsumoko Prezioen Indizearen urtetik urterako ehuneko-aldakuntza kontuan hartuta, eguneratze horren unean argitaratutako urtetik urterako azken indizeari dagokionez, eta Alokabideren webgunean argitaratuko dira.

Diru-sarrerak zenbatzeko, kontuan hartuko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaera egin aurreko zergaldia edo, onuragarriagoa izanez gero, eskaera egin aurreko hamabi hilabeteak. Diru-sarrera konputagarriak zerga-oinarri orokorra eta aurrezki-oinarria izango dira.

Gutxieneko diru-sarreretatik salbuetsita egongo da, baldin eta eskatzaileak egiaztatzen badu lan-harremana azken 12 hilabeteetan hasi duela eta eskabidea aurkezteko unean aktibo dagoela. Agindu honen 15.3 artikuluan jasotako urteko betebeharrei dagokienez, betekizun hori betetzen dela egiaztatu beharko da.

8. – 75.000 eurotik gorako ondasunen, eskubideen eta finantza-aktiboen titularra ez izatea, salbu eta enpresa- edo lanbide-jarduera bati atxikita badaude.

9. – Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea.

6. artikulua. – Bateriaezintasunak.

Gaztelagun programaren alokairurako laguntza bateraezina izango da honako hauekin:

1. – Errentamenduko babes publikoko etxebizitzaz gozatzea.
2. – Alokairuko etxebizitza pribatu batez gozatzea, ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programaren edo Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren bidez.
3. – Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) edo administrazio publikoen gizarteratze-politiketatik eratorritako edozein errenta jasotzea.
4. – Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE), udal-laguntzak edo alokairu-gastuei aurre egiten laguntzen duen beste edozein administrazio edo erakunde publikoren laguntzak jasotzea, gazteen emantzipazioa bultzatzeko laguntzak izan ezik (Ypa

programa).

5. – Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 51. artikuluan 2.a apartatuan aipatutako alokairu-gastuekin lotutako gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzea.

7. artikulua. – Zenbatekoa.

1. – Laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu errentariak ordaindutako hileko errentaren % 60, pertsona indibiduala zein familia-unitatea izan.

2. – Pertsona edo familia-unitate onuradun bakoitzari emandako laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu etxebizitzarako prestazio ekonomikorako (EPE) ezarritako gehieneko muga. Nolanahi ere, laguntzaren zenbateko osoak ezin izango du gainditu errentamenduagatik edo logelagatik benetan ordaindutako zenbatekoa, eta azpierrentamenduengatik izandako edozein diru-sarrerengatik murriztuko da.

3. – Baldin eta etxebizitza berean bi bizikidetza-unitate edo gehiago bizi badira, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 4/2022 Legearen 25.2 artikuluan aurreikusitako ahaidetasun-harremanik gabe, azpierrentamenduaren edo logelen alokairuaren arabera, gehienez bi laguntza eman ahal izango dira etxebizitza bakoitzeko, agindu honetan eskatutako baldintzak bete ondoren. Bi eskabide baino gehiago badaude, aurkeztu diren hurrenkeraren arabera ebatziko dira.

4. – Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera bi laguntza emateko, ezinbesteko baldintza izango da bizikidetza-unitate bakoitzak bere errentamendu-kontratua, gela-alokairukoa edo azpierrentamendukoa izatea, eta azken kasu horretan sartuko da errentamendu nagusiaren figura etxebizitza bakoitzeko emandako laguntza guztien kopuruan.

Logela- edo azpierrentamendu-kontratuaren modalitateko laguntza jaso dezaketen bi kontratuetako bakoitzaren hileko errenta osoak ezin du gainditu etxebizitza oso baten hasierako hileko gehieneko errentaren muga, eta kontratu horietako bakoitzerako hasierako hileko gehieneko errenta agindu honen 2. artikuluan ezarritako etxebizitza osorako hasierako gehieneko errentaren % 50 izango da.

8. artikulua. – Kudeaketa.

Gaztelagun programako alokairurako laguntzen kudeaketa organo kudeatzaileari dagokio, hau da, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzei, 9. eta 13. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Hala ere, Alokabide SA sozietate publikoak kudeaketan lagunduko du, hurrengo artikuluetan aurreikusitako jarduketak eginez.

9. artikulua. – Alokabide SA sozietate publikoaren jarduketak.

1. – Alokabide SAK etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak emandako enkargu-ebazpenean aurreikusitako jarduerak egingo ditu. Ebazpen horren bidez, Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzen kudeaketa materiala esleitzen zaio. Erakunde laguntzaileak egin beharreko jarduerak ez dute inola ere ekarriko ahal publikoak erabiltzea.

2. – Alokabide SAr dagozkio honako jarduketa hauek:

– Aurrez aurreko eta banakako informazioa, orientazioa eta aholkularitza, interesdunek eskabideak behar bezala bete eta dagokion dokumentazioa erantsi ahal izan dezaten.

– Eskabideak jasotzea eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Zuzentzeko errekerimenduak proposatzea dagokion ordezkaritzari.

– Laguntzak ordaintzea.

– Onuradunek betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea.

10. artikulua. – Eskabidea.

1. – Interesdunek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/servicios/gaztelagun>), Zuzenean herritarrentzako arreta-zerbitzuan eta Alokabide SA sozietate publikoan eskuragarri egongo den eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dute eskabidea.

2. – Eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan aurkez daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/gaztelagun>.

3. – Kasu horretan, eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egingo dira, «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

4. – Ordezkaritza bidez jarduten den kasuetan, ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>.

5. – Eskabidea aurrez aurre ere aurkez daiteke hemen:

a) Zuzenean – Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Zerbitzuak, aldezturik hitzordua eskatuta <https://www.euskadi.eus/cita-previa-zuzenean> helbidean, edo aldezturik hitzordua eskatzeko edo baliogabetzeko telefono eskusiboaren bidez: 945 01 90 00

b) Erakunde laguntzailea, Alokabide SA sozietate publikoa, ahal dela aldezturik hitzordua eskatuta, aurretiazko hitzordua eskatzeko edo ezeztatzeko telefonoaren bidez: 945 56 90 20.

c) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoan irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 100., 101. eta 102. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako aurkezpen-bideetan ere.

6. – Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea, atxikitako egiaztagiriekin batera. Halaber, eskabidetik eratorritako jarduketetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7. Eskatzaileek bitarteko elektronikoak erabiltzeko arreta eta laguntza eskatu ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12. artikuluan, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen eta Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoan irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

11. artikulua. – Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1. – Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, errentamenduko babes publikoko etxebizitzarik ez duela eta 6. artikuluan aipatzen diren errenta, prestazio edo laguntza bateraezinak jasotzen ez dituela adierazten duena.

b) Errentapeko etxebizitzako errolda-ziurtagiri eguneratua eta antzinasuna.

c) Jabetza Erregistroko Indize Zerbitzuak emandako ziurtagiria, eskatzailea etxebizitzaren titularra ez dela egiaztatzen duena.

d) Diru-sarrerak egiaztatzeko agiriak:

– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena, eskabidea aurkeztu aurreko zergaldiari dagokiona.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenari, hala badagokio, prestazio ez-kontributiboen ziurtagiria erantsiko zaio.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren kopia aurkezten ez duten pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, data eguneratuarekin.

– PFEZaren atxikipenen ziurtagiri ofiziala (10T dokumentua).

– Ikerketarako beka edo laguntzen kasuan, hori justifikatzen duen ziurtagiria.

e) Etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren kopia, non, gutxienez, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 37. artikuluan aipatzen diren edukiak jasoko baitira, bai eta azpierrentamendu-kontratuaren kopia ere, errentatzailearen idatzizko adostasunarekin, eta haren kausa den kontratua edo logelen alokairu-kontratuaren kopia.

f) Errenta banku-transferentzia bidez ordaindu izanaren egiaztagiria. Bertan, gutxienez, datu hauek jaso beharko dira: agindu-emailaren datuak, onuraduna, ordaindutako errentaren hilabetea eta urtea, kontu-zenbakiak, zenbatekoa eta finantza-erakundearen baliozkotzea, eragiketa egin dela modu frogagarrian bermatzen duena. SEPAREN berehalako transferentzietan oinarritutako ordainketa mugikorrekiko soluzioen frogagiriak baliozko frogagiritzat hartuko dira, baldin eta modu frogagarrian identifika badaitezke agindu-emaila, onuraduna, ordaindutako errentaren hilabetea eta urtea eta zenbatekoa.

g) Etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetz-unitateko edozein kiderekin odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko familia-loturarik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

h) Laguntza sartuko den banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.

i) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen direla dioen erantzukizunpeko adierazpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria izan ezik.

j) Eskatzaileen egoera zibilari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Baterako errentamenduaren kasuan, baterako errentarien artean dagoen harreman mota zehaztu behar da.

k) Desgaitasuna duten pertsonen kasuan, organo eskudunak emandako desgaitasuna aitortzeko ebazpen edo ziurtagiri ofiziala.

2. – Laguntza familia-unitate batentzat eskatzen bada, 1. apartatuko a), b), c), d), g), i) eta j) letretan aurreikusitako dokumentuek familia-unitatea osatzen duten adin nagusiko pertsona guztiei egin beharko diete erreferentzia, eta familia-liburua aurkeztu beharko dute.

3. – Familia ugariak egiaztapen-titulua aurkeztu beharko dute, eta edozein motatako desgaitasuna duten pertsonak administrazio-organoko eskudunak emandako egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.

4. – Interesdunek eskubidea dute a), b), c) eta d) letretan eta 1. apartatuaren i) letrako

salbuespenean eta 3. apartatuan aipatzen diren dokumentuak ez aurkezteko, baldin eta ez badute eragozpenik jartzen etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak edo Alokabide SAK beste administrazio publiko batzuetan elektronikoki eskuragarri dauden dokumentuak kontsultatzeko edo eskuratzeko, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluaaren arabera.

12. artikulua. – Behin-behineko aitorpena eskatzea.

1. – Errentamendu-kontratua sinatu aurretik, laguntzaren behin-behineko aitorpena eskatu ahal izango da, 11. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztuta, 1. apartatuko a), b), e), f) eta g) letretan aipatutakoa izan ezik.
- 2.- Ebazpena aldekoa bada, interesdunak falta den dokumentazioa aurkeztu beharko du sei hilabeteko epean, behin-behineko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, fidantza ordaindu izanaren egiaztatzea barne.
3. – Dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko ebazpena emango da.
4. – Dokumentazioa epearen barruan aurkezten ez bada, behin-behineko aitorpena ondorioz gabe uztea ebatziko da.

13. artikulua. – Prozedura eta ebazpena.

- 1.- Laguntza hau emateko prozedura ondoz ondoko emakida izango da.
2. – Alokabide SAK eskabideak behar bezala bete direla egiaztatuko du, bai eta laguntza-eskabidea izapidetzeko behar den dokumentazioa aurkeztu dela ere.
3. – Eskabidea izapidetzeko onartzeko eskatzen diren dokumentuak falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, dagokion ordezkariak hamar egun balioduneko epea emango dio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.
4. – Alokabide SAK, halaber, Gaztelagun programaren alokairurako laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatuko du. Etxebizitzako lurralde-ordezkariek

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariari bidaliko dio ebazpen-proposamen arrazoitua, eta hari dagokio ebaztea.

5.- Ebazpena hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera egiten den egunetik zenbatzen hasita, eta administrazioaren isiltasuna ezeslea izango da. Hala ere, akatsak zuzentzeko epe bat ireki bada, aipatutako epea etenda geratuko da eskatzaileari bidalitako jakinarazpena jasotzen denetik eskatutako dokumentazio guztia aurkezten den arte.

6. – Interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute ebazpenaren aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

7. – Ebazpen baiekleak onuradunak erroldatuta dauden udalei jakinaraziko zaizkie, neurri egokiak har ditzaten 6. artikuluaaren arabera bateraezinak diren laguntzak jasotzen ari badira.

8. – Laguntzen esleipena ez da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko. Hala ere, hilerik argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-atarian eta Alokabide SAREN webgunean dagokion aldiari emandako eta azkendutako laguntzen kopurua eta zenbateko osoa, lurralde historikoaren eta onuradunaren sexuaren arabera bereizita.

14. artikulua. – Prestazioa ordaintzea.

1. – Alokairurako laguntza emakidaren ebazpena jakinarazi ondoren gauzatuko da, eta hilerik ordainduko da, emate-aldi osoan, salbu eta onuradunak ez-betetzeren bat egiten badu; kasu horretan, ordainketa bertan behera geratuko da.

2. – Laguntza ematen den egunetik aurrera aginduko da ordainketa, eta aurkezten den egunaren hurrengo hilaren batetik aurrera sortuko da.

3. – Behin-behineko aitorpen-kasuetan, sortzapen-data 12.2 artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo hilaren lehena izango da.

15. artikulua. – Onuradunen betebeharrak.

Laguntzen onuradunek betebeharrak hauek dituzte:

1. – Laguntzen zenbateko osoa alokatutako etxebizitzaren errenta ordaintzeko erabiltzea.

2. Errenta banku-transferentzia bidez ordaindu izanaren egiaztagiria urtero aurkeztea Alokabide SAn, aurreko artikuluaaren bigarren paragrafoan adierazitako sortzapen-datatik aurrera, dagokion hilaren 15a baino lehen. Egiaztagiri horretan, datu hauek jaso beharko dira gutxienez: agindu-emailaren datuak, onuraduna, ordaindutako errentaren hilabetea eta urtea, kontu-zenbakiak, zenbatekoa eta finantza-erakundearen baliozkotzea, eragiketa egin dela modu frogagarrian bermatzen duena.

3. – Alokabide SAn honako hauek aurkeztea urtero, sortzapen-egunetik hasita, dagokion hilaren 15a baino lehen:

a) 11.1 d) artikuluan aipatzen diren diru-sarreraren egiaztagiriak, eskaera aurkeztu ondorengo zergaldi bakoitzari dagozkionak, edo onuradunak dokumentazio hori aurkezteko betebeharra duen dataren aurreko hamabi hilabetei dagozkienak, baldin eta onuragarriagoa bada.

Dokumentazioa hilabeteke epean aurkeztu beharko da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

b) 11.1 artikuluko a), b), c), i) eta j) apartatuetan aipatzen diren gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

4. – Alokabide SAri jakinaraztea laguntza ematea eragin zuten baldintzak aldatzea dakarren edozein aldaketa.

5. – Bidegabe kobratutako zenbatekoak itzultzea, hala ebazten bada. Bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra adierazi ahal izango da Gaztelagun laguntza aldatzeko edo azkentzeko ebazpenean, zehapen-prozedura baten ebazpenean edo xede horretarako berariaz bideratutako ebazpen batean. Itzulketa konpentsazio bidez egin ahal izango da, zor den zenbatekoa Gaztelagun laguntzaren etorkizuneko ordainketen zenbatekotik deskontatuz, salbu eta zenbateko hori itzulketari aurre egiteko nahikoa ez bada, Gaztelagun laguntza azkentzen bada edo onuradunak berariaz aurka egiten badu.

6. – Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako

informazio guztia ematea, betiere laguntzaren zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunen jardunean ari badira.

7.- Interesdunek 3. apartatuan aurreikusitako dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea dute, baldin eta ez badute eragozpenik jartzen etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak edo Alokabide SA sozietateak beste administrazio publiko batzuetan eskuragarri dagoen dokumentazioa elektronikoki kontsultatzeko edo eskatzeko, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez.

16. artikulua. – Laguntza aldatzea.

1. – Etxebizitzaz, errentaren zenbatekoaz edo banaka ordaindutako errentaren zatiaz edo errentarien zenbatekoaz aldatzeak laguntza-ebazpena aldatzea ekarriko du, betiere onuradunek baldintzak betetzen jarraitzen badute eta dagozkion egiaztagiriak aurkezten badituzte.

2. – Onuraduna guraso bakarrekoak ez diren familia-unitateetan hiltzen, banantzen edo dibortziatzen bada, laguntzaren ebazpena aldatu egingo da, familia-unitateko kideek baldintzak betetzen jarraitzen badute.

17. artikulua. – Azkentzea.

Azkentzeko prozedura bat hasteak, nolanahi ere, ordainketa kautelaz etetea ekarriko du. Laguntza arrazoi hauengatik azkenduko da:

1.- Laguntza jasotzeko gehieneko adina betetzea (36 edo 40 urte). Familia-unitateen kasuan, nahikoa izango da onuradunetako bat adin horretara iristea.

2.- Laguntza lortzea eragin zuten baldintzak ez betetzea.

3.- Onuradunak uko egitea.

4.- Onuraduna hiltzea, banantzea edo dibortziatzea, 16.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

5.- Aurkeztutako datuetan edo eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenetan egiaztatutako faltsutasuna.

6.- 15. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea.

18. artikulua. – Bidegabeki jasotako laguntzak azkentzeko eta itzultzeko prozedura.

Bidegabe jasotako laguntzak azkentzeko eta itzultzeko prozedura Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

19. artikulua. – Zehapen-araubidea.

Zehapen-araubidea honako hauetan aurreikusitakoa da:

- a) Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen X. kapitulua eta, zehazki, 84. artikuluko ñ letra. Horren arabera, falta astuntzat jotzen da pertsona onuradunek etxebizitzaren edo birgaitzearen arloan jasotako laguntzak ematea eragin zuen helbururako erabiltzen ez dituztenean.
- b) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen IV. titulua eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu hau honako hauen babesean emandako laguntzei aplikatuko zaie: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Agindua, Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzak arautzen dituen, eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2026ko ekainaren 5eko Agindua, 2026ko ekitaldirako Gaztelagun programako etxebizitzaren alokairurako laguntzen oinarriak onartu eta deialdia egiten duena, laguntza horiek indarrean jarraitzen duten bitartean eta onuradunek hala eskatzen duten bitartean.

Eskabidea agindu hau indarrean jarri eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztu ahal izango da, eredu ofizialaren arabera. Eredu hori eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/servicios/gaztelagun>), Zuzenean herritarrentzako arreta-zerbitzuan eta Alokabide SA sozietate publikoan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2027ko ekitaldian 33.000.000 euro esleitu dira 2027ko abenduaren 31ra arte eskatutako Gaztelagun programako laguntzak finantzatzeko, honela banatuta:

2027. urtea – 24.750.000 euro.

2028. urtea – 8.250.000 euro

Pertsona eta hilabete bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga 300 eurokoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau 2027ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abenduaren XX (a).

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA

ETXEBIZITZA ETA
HIRI-AGENDA